

essi gelaren

MANIFESTUA

02

PERTSONAK ETA HELBURU EKOSOZIALAK KAPITALAREN AURRETIK

Kudeaketa demokratikoa, gardena eta parte-hartzaile izaera duten proiektu sozioekonomikoak sustatzeko eta indartzeko ezagutzak lantzea helburu.

04

HEZIKETA-IBILBIDE ASKE ETA DUINAK

Ikasgelako parte-hartzaile guztiei, ESSEko interes eta baloreen bitartez, kultura askatzailea garatzeko tresnak eskuragarri jartzeko konpromisoa dugu.

06

JUSTIZIA SOZIALA ETA ELKARTASUNA

Justizia soziala garatzeko errealitate desberdinduen konzientzian sakontzeko konpromisoa hartzen dugu, egunerokoan izaera antiarrazista eta dekolonialak diren proiektuak sustatuz.

08

EKONOMIA ALTERNATIBOAREN BISIBILIZAZIOA

ESSE esperientziak eta proiektuak ikusarazteko eta lantzeko espazio bizi eta irekia bat gara, eta oparotasuna denontzat sortzeko ekarpen guztiak dira ongi etorriak.

01

EKONOMIA SOZIAL SOLIDARIO ETA ERALDATZAILEA (ESSE) IPARORRATZ

- *Bizitzen bizigarritasuna erdigunean
- *Komunitatearekin konpromisoa
- *Lankidetza eta interkooperazioa
- *Burujaitezarako heziketa
- *Ekonomia alternatiboaren oinarriak
- *Aberastasunaren banaketa justoa

10

KOMUNITATEA ETA LURRALDEA

Lurraldean errotuta eta ESSEaren eta euskal komunitatearen erronka ekosozialetan oinarrituz, essi ikasgelaren lan ildoak zehazten ditugu.

BOKAZIO PRAKTIKOA

Ikasleen beharrei erantzuteko espazioa izateko lan egiten dugu: Praktikak, GRALak, bekak, ESSEko sektoreko erakundeen parte-hartzea, ESSEan ibilbide profesionala garatzeko oinarriak finkatzea...

03

SAREA ETA INTERKOOPERAZIOA

Eragile desberdinak elkarlanean: ikasle, irakasle eta ESSE sektoreko erakundeak. Partekatuz, inpaktatuz eta elkar-babestuz, Ekosistema bat sortu eta bultzatzea dugu helburu.

05

ANITZA ETA FEMINISTA

Pertsona anitzen arteko ideien elkartrukean hazten gara sinesten dugu. Haleber, feminista den eta biolentzia matxistatik librea den espazio bat izateko lan egiten dugu.

07

EUSKARA

essi ikasgelatik euskararen alde lan egiten dugu, eta euskaraz egindako lan eta hausnarketak bultzatuko ditu bereziki, beti ere hizkuntza aniztasuna moduan ulertuz.

09